Xedapen Orokorrak

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Zk-5589

AGINDUA, 2002ko uztailaren 30ekoa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, gas- eta urkontagailuak eta kontagailu elektrikoak egiaztatzeko prozedura onartzen duena, erreklamazio edo salaketarik egonez gero erabiltzeko.

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 12. artikuluko 5. paragrafoak xedatzen duenez, Autonomia Erkidego honek eskumena du pisu eta neurrien arloko Estatuko legedia gauzatzeko.

Eskumen hori erabiliz, otsailaren 27ko 38/2001 Dekretuaren bidez arautzen dira orokorrean Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia-kontrola burutzeko bitartekoak. Bestalde, dekretuak industria gaietan eskumena duen sailburuari dekretua garatu eta burutzeko behar diren xedapen guztiak emateko ahalmena aitortzen dio.

Aurreko xedapen horietan ezarritakoa kontuan hartuta, eta gai horri buruzko eskumenek izaera exekutiboa dutenez, Agindu honen helburua da kontagailu mota batzuk egiaztatzeko prozedura arautzea, baina kontagailuaren titularrak edo erabiltzaileak edo enpresa instalatzaileak eskatzen baldin badu kontagailua egiaztatzeko. Edozelan ere, kontagailua egiaztatzeko eskabidea egiteko, nahikoa arrazoi egon beharko da, hau da, kontagailua behar bezala ez dabilela erakusten duten elementu edo adierazleak egon beharko dira.

Estatuan ez dagoenez inolako araudirik neurketa-aparailu hauen gaineko erreklamazio-prozedurak arautzen dituenik eta aparailuen funtzionamenduak gehienez izan ditzakeen akats onargarriak ezartzen dituenik (1 eta 2 motako korronte alternodun energia aktiboko kontagailu estatikoak eta 2 motako indukziokoak izan ezik), eta aparailua txarto ibiltzeagatik edo legezko mugetatik kanpo ibiltzeagatik, aldeentzako konpentsazio edo fakturazio prozedurarik ere ez dagoenez, ezinbestekoa egiten da honako arau hau onartzea; izan ere, arau honek zehaztu eta arautuko ditu lehen aipatu diren baldintzak eta egiaztapena egiteko prozedurak, bai eta, hala badagokio, konpentsazioa ere.

Orain arteko araudia gas kontagailuei buruzkoa baino ez da, eta Gas Erregaien Zerbitzu Publikoari buruzko Araudi Orokorra onartu zuen urriaren 26ko 2913/1973 Dekretuaren 73. artikuluan eta hurrengoetan dago xedatuta. Arau horrek egiaztatzeko prozedura ezartzen du, baina ez du zehazten gehienez izan daitezkeen akats onargarriak.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

Nº-5589

ORDEN de 30 de julio de 2002, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el procedimiento de verificación de contadores eléctricos, de gas y de agua, para los supuestos de reclamaciones o denuncias.

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, por la que se aprueba el Estatuto de Autonomía para el País Vasco, establece en su artículo 12, punto 5, que esta Comunidad Autónoma es competente para la ejecución de la legislación del Estado en materia de pesas y medidas.

En ejecución de la referida competencia, el Decreto 38/2001, de 27 de febrero, regula, con carácter general, los medios para la ejecución del control metrológico en la Comunidad Autónoma de Euskadi, facultando al Consejero competente en materia de industria, para dictar las disposiciones necesarias para su desarrollo y ejecución.

De acuerdo con lo establecido en las disposiciones mencionadas y en función del carácter ejecutivo de la competencia en esta materia, la presente Orden tiene por objeto regular el procedimiento de verificación de determinado tipo de contadores, pero únicamente en los supuestos en los que la verificación es requerida o solicitada por el titular o usuario del contador o por la empresa suministradora, solicitud que, en cualquier caso, deberá considerarse fundada por existir elementos o indicadores de que el contador no funciona correctamente.

Ante la ausencia, en el ámbito estatal, de una regulación que establezca el procedimiento de reclamación, así como los errores máximos admisibles en el funcionamiento de estos aparatos de medición (salvo los contadores estáticos de energía activa en corriente alterna, clases 1 y 2 y los de inducción clase 2), y el procedimiento de facturación o compensación para las partes en los casos de funcionamiento erróneo o fuera de los márgenes legales, se hace necesario aprobar la correspondiente norma en la que se determinen y regulen las referidas condiciones y procedimientos de verificación, y en su caso, compensación.

La regulación existente hasta la fecha se limita, para los contadores de gas, a lo establecido en los artículos 73 y siguientes del Reglamento General del Servicio Público de Gases Combustibles, aprobado por Decreto 2913/1973, de 26 de octubre, norma que establece el procedimiento de verificación sin determinar los errores máximos admisibles.

Bestalde, kontagailu elektrikoak direla eta, esan behar da horiei buruzko araubide orokor aplikagarria 1954ko martxoaren 12ko Dekretuak onartu zuen Energiaren Horniketaren Erregulartasunari eta Egiaztapen Elektrikoari buruzko Erregelamenduan zegoela, eta gaur egun erregelamendu hori indargabetuta dago. Bestalde, erregelamendu horrek egiaztapena egiteko prozedura eta mota horretako kontagailuetan gehienez onar daitezkeen akatsak ezartzen zituen. Abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak indargabetu egin zuen 1954ko martxoaren 12ko Dekretua, eta harrez geroztik ez da gai hau arautzen duen araurik onartu. Egun arau bakarra dago indarrean 1 eta 2 motako korronte alternodun energia aktiboko kontagailu estatikoentzat, kontagailu horiek izan ditzaketen gehienezko akats onargarriak direla eta, eta arau hori honakoa da: Estatuak kontagailu mota horren gainean egiten duen metrologia kontrola arautzen duen 2000ko otsailaren 18ko Agindua.

Horiez gain, honako hauek ere araututa daude: maiatzaren 8ko FOM/1100/2002 Aginduan adierazitako 2 motako indukzioko kontagailuen entseguak, akats onargarriak eta kontagailuak atzera botatzeko irizpideak.

Ur kontagailuen kasuan, berariazko araudirik ez denez egon, 1954ko martxoaren 12ko Dekretuan aurreikusitako kontagailu elektrikoen araubidea erabili izan da. Eta araudi hori aplikatu izan da, lehengo Industria eta Energia Ministerioaren zenbait aginduren ondorioz; eta, besterik ezean, agindu horiek erabiltzea legezkoa zela onartzen zuten zenbait pronuntziamendu jurisprudentzial zeuden.

Azkenik, gogoratu behar da Metrologiari buruzko martxoaren 18ko 3/1985 Legeak ezarri zuela jarduera metrologikoaren araubidea, eta, bereziki, ezarri zuen metrologia arloan aplikatu daitezkeen objektu eta elementu guztiak daudela kontrol metrologikoaren pean, bai eta erregelamendu bidez zehazten diren neurketak ere. Bestalde, kontrol mota hau garrantzi handikoa bihurtzen da, kasu honetan bezala, kontagailuen funtzionamenduaren ondorioz besteak beste kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes ekonomikoak kaltetzen badira, kontuan izanik martxoaren 18ko 3/1985 Legeak berak arautzen duela interes horien babesa. Izan ere, lege horrek botere publikoen berariazko betebeharra dela ezartzen du eta, zehatzago esateko, metrologia arloan eskumenak dauzkaten agintarien berariazko betebeharra dela ezartzen du.

Esan dugunez, gaur egun ez dago Agindu honen ezarpen eremuan sartzen diren kontagailuei buruzko kontrol metrologikoa (bai aldikako ikuskapenen fasean bai gerora egin beharreko konponketa edo aldaketa faseetan) berariaz arautzen duen edo ezartzen duen agindurik. Beraz, hori ikusita, sail honek ezinbestekotzat jo du interesatuek, hau da, kontagailuaren titularrek, enpresa hornitzaileek, jabeek edo erabiltzaileek eskatuta-

Por otra parte y en relación con los contadores eléctricos, el régimen general aplicable se encontraba en el derogado Reglamento de Verificaciones Eléctricas y Regularidad en el Suministro de Energía, aprobado por Decreto de 12 de marzo de 1954, que establecía tanto el procedimiento de verificación como los errores máximos admisibles en el funcionamiento de este tipo de contadores. Este Decreto fue derogado por Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, sin que hasta la fecha se haya aprobado una norma donde se regule esta materia. En la actualidad únicamente está vigente para los contadores estáticos de energía activa en corriente alterna, clases 1 y 2, en relación con la determinación de los errores máximos admisibles, la Orden de 18 de febrero de 2000, por la que se regula el control metrológico del Estado sobre estos contadores.

También están regulados los ensayos, errores tolerados y los criterios de rechazo para los contadores de inducción clase 2, indicados en la Orden FOM/1100/2002 de 8 de mayo.

En relación con los contadores de agua y a falta de regulación expresa se había hecho extensivo el régimen de los contadores eléctricos previstos en el Decreto de 12 de marzo de 1954, a estos contadores, aplicación que se derivaba de lo dispuesto por diversas Ordenes del entonces Ministerio de Industria y Energía y que contaban con los correspondiente pronunciamientos jurisprudenciales en los que se admitía la legalidad de la referida supletoriedad.

Por último, recordar que la Ley 3/1985, de 18 de marzo, de Metrología, establece el régimen jurídico de la actividad metrológica y en concreto establece que están sujetos a control metrológico todos los objetos y elementos de aplicación en metrología, así como, las mediciones que reglamentariamente se determinen. Este control tiene especial trascendencia cuando, como en el caso que nos ocupa, del correcto funcionamiento de los referidos contadores pueden resultar afectados, entre otros, los intereses económicos de los consumidores y usuarios cuya protección ordena la referida Ley, imponiéndola expresamente como una obligación de todos los poderes públicos, y en concreto, a las autoridades con competencias atribuidas en materia de metrología.

Tal como hemos expuesto, actualmente, salvo para los referidos contadores eléctricos, no existe una norma que expresamente regule o establezca el control metrológico, en las fases de verificación periódica y después de reparación o modificación, sobre los contadores que constituyen el ámbito de aplicación de la presente Orden, planteándose ante este Departamento la inexcusable necesidad de dar respuesta a las denuncias o recla-

ko egiaztapen-salaketei edo erreklamazioei irtenbideren bat ematea.

Bestalde, ur-horniduraren gainean, Toki-Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak korporazio lokalei esleitzen dien eskumena hartu behar da kontuan; hori dela eta, korporazio horiek Agindu honetan xedatutakoa aplikatuko dute, baldin eta korporazioek beste araudirik ez badaukate, akats onargarriak zehazteari eta egiaztapen teknikoari (Eranskinak) buruzko kontuetan izan ezik; izan ere, horiek izaera metrologikoko gaiak direnez, Sail honek dauka horien gaineko exekuzio-eskumena.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia kontrola burutzeko bitartekoak ezartzen dituen otsailaren 27ko 38/2001 Dekretuko azken xedapenetatik lehenengoan xedatutakoarekin bat, honakoa

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Helburua eta ezarpen-eremua.

1.– Agindu honen helburua da behe-tentsioko ur- eta gas-kontagailuen eta kontagailu elektrikoen funtzionamendua dela eta, Sail honetan aurkezten diren erreklamazio, kexa edo salaketak izapidetzeko administrazio-prozedura ezartzea.

2.– Arau honetan jasotako xedapenak bakar-bakarrik aplikatuko dira egiaztapen-eskabidea kontagailuaren titularrak edo erabiltzaileak, edo enpresa hornitzaileak, merkaturatzen duen enpresak eta/edo enpresa banatzaileak (aurrerantzean enpresa hornitzailea esango diogu) aurkeztu badu.

3.– Arau honetan xedatutako nahitaez aplikatuko zaie kontagailu horiei, eta berdin dio kontagailuen titularra nor den, enpresa hornitzailea ala erabiltzailea.

4.– Ur-kontagailuak direla eta, esan behar da kontagailuen egiaztapen teknikoarekin (metrologia) lotutako alderdiek baino ez dutela bete beharko Agindu honetan ezarritakoa; eta korporazio lokalen zeregina izango dela kontagailuak txarto dabiltzanean egin beharreko kontsumoen fakturazioa eta gastuen inputazioa arautzea.

2. artikulua.– Aldizkako egiaztapena.

Agindu honetan xedatutakoa konta hartuta, erreklamazio baten ondorioz egiten den edozein egiaztapenek aldizkako egiaztapen baten ondorioak izango ditu ezinbestean, beti ere aldizkako egiaztapena egitea derrigorrezkoa bada dagokion araudiaren arabera.

maciones de verificación a petición de parte interesada, es decir del titular, empresa suministradora, propietario o del usuario del contador.

En materia de suministro de agua, se debe tener en cuenta la competencia que se atribuye a las Corporaciones Locales, por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, razón por la cual lo dispuesto en la presente Orden, únicamente se aplicará por estas Corporaciones en defecto de regulación propia, salvo los aspectos relativos a la verificación técnica y determinación de errores admisibles (Anexos), que por tratarse de una materia de carácter estrictamente metrológico, la competencia de ejecución, corresponde a este Departamento.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Final Primera del Decreto 38/2001, de 27 de febrero, por el que se establecen los medios para la ejecución del control metrológico en la Comunidad Autónoma de Euskadi,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto y campo de aplicación.

1.– La presente Orden tiene por objeto, establecer el procedimiento administrativo por el cual se tramitarán las reclamaciones, quejas o denuncias, que en relación con el funcionamiento de contadores de agua, gas y electricidad en baja tensión, se planteen ante este Departamento.

2.– Las disposiciones contenidas en la presente norma se aplicarán, únicamente, cuando la solicitud de verificación se presente por el titular o usuario del contador, o por la correspondiente empresa suministradora, comercializadora y/o distribuidora (en adelante suministradora).

3.– Lo establecido en la presente norma se aplicará a los referidos contadores independientemente de que la titularidad de los mismos corresponda a la empresa suministradora o al usuario de los mismos.

4.– Con respecto a los contadores de agua, se regirán por lo dispuesto en la presente Orden, únicamente los aspectos relativos a la verificación técnica de los mismos (metrología), correspondiendo a las Corporaciones Locales, la regulación, tanto de la imputación de gastos, como la facturación de consumos en los supuestos de funcionamiento erróneo.

Artículo 2.– Verificación periódica.

La verificación que se efectúe como consecuencia de una reclamación y en virtud de lo establecido en la presente Orden, tendrá, en cualquier caso, todos los efectos de una verificación periódica, cuando tal verificación periódica sea obligatoria de acuerdo con la correspondiente norma.

3. artikulua.– Behar bezala ez ibiltzea.

Kontagailu bat behar bezala ez dabilela esango da, baldin eta Agindu honetan xedatutakoa kontuan hartuta, egiaztapena egiten bada eta, dagokion laborategi ofizialak emandako txosten teknikoarekin bat, egiaztapeneko emaitzek adierazten badute mota horretako kontagailuen aldizkako egiaztapena egiteko arauan aurreikusitako akats onargarrien gehienezko kopurua gainditu dela.

4. artikulua.– Entitate edo laborategi ofizialak.

1.– Zeregin hauetarako behar bezala baimenduta dagoen, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan metrologia-kontrola burutzeko bitartekoak arautzen dituen otsailaren 30eko 38/2001 Dekretuak ezarritakoarekin bat datorren metrologiako edozein entitate edo laborategi ofizialek egin ditzake Agindu honek aipatzen dituen kontagailu-egiaztapenak.

2.– Edozelan ere, aurreko paragrafoan aipatu diren laborategiek ezin dute izan loturarik ura, gasa edo elektrizitatea zerbitzatu, merkaturatu eta/edo banatzen duten enpresekin.

5. artikulua.– Egiaztapenak eragindako gastuak.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, kontagailua frogatu duen edo kontagailuaren egiaztapen teknikoa egin duen laborategi ofizialak ezarritako kostuak baino ez dira hartuko egiaztapen gastutzat.

2.– Ez dira joko egiaztapen gastutzat egiaztatu behar den kontagailua kentzeak eta ordezkatzeak sortutako gastuak, ez eta instalazio berria ipintzeagatik sortutakoak ere. Gastu horiek guztiak enpresa hornitzaileak hartu beharko ditu bere gain.

6. artikulua.– Gastuen inputazioa.

Gastuak egiaztapenen emaitzak kontuan hartuta inputatuko dira, eta honako arau hauen arabera:

A.– Kontagailua behar bezala ez ibiltzea. Egiaztapena egin eta ikusten bada kontagailua ez dabilela behar bezala, aurreko artikuluan aipatu diren gastuak titularraren kontura izango dira.

B.– Kontagailua behar bezala badabil. Ikusten bada kontagailua behar bezala dabilela, egiaztapena eskatu duenaren kontura izango dira egiaztapeneko gastuak.

II. KAPITULUA
EGIAZTAPENEKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURA

7. artikulua.– Erreklamazioak aurkeztea.

1.– Lurralde bulegoek interesatu guztiei jakinaraziko diete kontagailuaren funtzionamendua baieztatzeko

Artículo 3.– Funcionamiento erróneo.

1.– Se considerará que un contador funciona erróneamente, cuando tras la verificación efectuada con arreglo a lo dispuesto en la presente Orden y de acuerdo con el informe técnico emitido por el correspondiente laboratorio oficial, los resultados obtenidos superen los errores máximos admisibles previstos en la correspondiente norma para la verificación periódica de este tipo de contadores.

Artículo 4.– Entidades o Laboratorios Oficiales.

1.– Las verificaciones de contadores a que se refiere la presente Orden, se podrán realizar en cualquiera de las Entidades o Laboratorios Oficiales de metrología que estén debidamente autorizados para esta función, conforme a lo establecido en el Decreto 38/2001, de 27 de febrero, por el que se regulan los medios para la ejecución del control metrológico en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– En cualquier caso, los Laboratorios a los que se refiere el punto anterior serán independientes de las empresas suministradoras, comercializadoras y/o distribuidoras de agua, gas o electricidad.

Artículo 5.– Gastos derivados de la verificación.

1.– A los efectos previstos en la presente Orden, se considerarán gastos de verificación, únicamente los costes fijados por el correspondiente Laboratorio Oficial donde se realice la comprobación o verificación técnica del contador.

2.– No tendrán la consideración de gastos de verificación los derivados de la retirada del contador a verificar, ni los de sustitución del mismo, ni los de nueva instalación. Estos gastos correrán siempre por cuenta de la correspondiente empresa suministradora.

Artículo 6.– Imputación de gastos.

La imputación de los referidos gastos se efectuara en función del resultado de la verificación, teniéndose en cuenta las siguientes reglas:

A.– Funcionamiento erróneo del contador. Si como consecuencia de la verificación se comprueba que el contador funciona erróneamente, los gastos a los que se refiere el artículo anterior correrán por cuenta del titular del contador.

B.– Funcionamiento correcto del contador. En cambio, si se comprueba que el contador funcionaba correctamente, los gastos de verificación correrán por cuenta del solicitante de la verificación.

CAPÍTULO II
PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO DE VERIFICACIÓN

Artículo 7.– Presentación de la reclamación.

1.– Desde las Oficinas Territoriales se comunicará a todos los interesados la posibilidad de contrastar o ve-

edo egiaztatzeko aukera dutela beraien enpresa banatzailearekin.

2.– Kontagailua behar bezala ez dabilela uste duten titular edo erabiltzaileek aukera izango dute egiaztapen-erreklamazioa edo eskabidea aurkezteko industria gaietan eskumena duen lurralde bulegoan.

3.– Egiaztapen-eskabidearekin batera, eta eskabidea aurkezten duen une berean, interesatuak «egiaztapen-kostuak» (laborategiari dagozkionak) gordailatu beharko ditu, Agindu honetan xedatutakoa kontuan hartuta. Era berean, bere ustez egokiak diren agiri guztiak aurkeztuko ditu, bai eta, halakorik egonez gero, egiaztapenaren emaitzak edo interesatuak egindako erreklamazioari enpresa hornitzaileak eman dion erantzuna ere.

4.– Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa gordailatu arte, ez da erreklamazio batik ere izapidetuko.

8. artikulua.– Erreklamazioaren izapidetza.

Eskabidea jaso eta betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituela ikusi ostean, gai horretaz arduratzen den lurralde bulegoko zerbitzuak esango du, enpresa hornitzailearekin ados jarrita, zein egunetan eta zein ordutan kenduko duten kontagailua, hori egin ostean dagokion laborategi ofizialera bidaltzeko. Zerbitzuak horren berri eman beharko dio kontagailuaren titularrari edo erabiltzaileari.

9. artikulua.– Kontagailua kentzea eta laborategira bidaltzea.

1.– Kontagailua kendu baino lehen, kontagailuaren konexioak, kontagailuak hutsean nola funtzionatzen duen eta egiaztapenerako eta gerora egin beharreko kostuen likidaziorako bidezkotzat jotzen diren bestelako gai guztiak ere egiaztatu beharko dira.

2.– Egiaztapen horiek guztiak egin ostean, kontagailua kenduko da eta berehala beste bat ipiniko da haren ordez. Kontagailu berriak lehengoaren ezaugarri tekniko berak izan beharko ditu. Enpresa hornitzaileko pertsonala eta/edo egiaztatu behar den aparailuaren titularrak esaten duen instalatzaile baimendua arduratuko dira kontagailua kendu eta ordezkoa ipintzeaz. Kontagailua kendu eta ordezkoa ipintzen denean, honakoak egongo dira bertan: administrazioko teknikari bat edo hark izendatutako beste pertsona bat eta erabiltzailea, baldin eta azken hori bere borondatez bertaratzen bada.

3.– Administrazioko ordezkariak akta bat egin beharko du kontagailua kentzen duten unean bertan. Akta horretan honakoak jaso beharko ditu gutxienez: kontagailuaren identifikazio-datuak eta une horretako irakurketak. Bertaratutako guztiek izenpetu beharko dute akta.

4.– Administrazioak dagokion laborategira bidaliko du kendu duten kontagailua, laborategian egiaztarificar el funcionamiento del contador con su empresa suministradora.

2.– Los titulares o usuarios que consideren que su contador no funciona correctamente, podrán presentar la correspondiente reclamación o solicitud de verificación oficial en la Oficina Territorial competente en materia de industria.

3.– Junto con la referida solicitud de verificación y en el mismo acto de presentación, el interesado deberá realizar el depósito de los «costes de verificación» (los correspondientes al laboratorio) en función de lo establecido en la presente Orden. Así mismo, se aportará toda la documentación que el interesado considere procedente y en su caso, los resultados de la verificación o la contestación a su reclamación emitida por la empresa suministradora.

4.– No se tramitará ninguna reclamación si previamente no se ha procedido al depósito de la cantidad a que se refiere el punto anterior.

Artículo 8.– Tramitación de la reclamación.

Recibida la solicitud y comprobado que la misma reúne los requisitos y condiciones exigidos, el Servicio correspondiente de la Oficina Territorial fijará, de acuerdo con la empresa suministradora, el día y la hora para la retirada del contador y su remisión al correspondiente Laboratorio Oficial, debiendo notificarlo al titular o usuario del contador.

Artículo 9.– Retirada del contador y Remisión al Laboratorio.

1.– Antes de su retirada, se deberá verificar el conexionado del contador, su funcionamiento en vacío y cuantas cuestiones se consideren procedentes para su verificación y posterior liquidación de consumos.

2.– Realizadas las anteriores comprobaciones, se procederá a la retirada del contador y su sustitución, en el mismo acto, por otro de las mismas características técnicas. Esta actuación se realizará por el personal de la empresa suministradora y/o por el instalador autorizado que se designe por el titular del aparato a verificar, en presencia del técnico de la Administración o de la persona que ésta designe y del usuario si éste voluntariamente acude.

3.– En el mismo momento en el que se proceda a su retirada, por el representante de la Administración se deberá levantar un Acta, en la que deberá constar, como mínimo, los datos identificadores del contador y las lecturas que ofrezca en ese momento. El Acta deberá ser firmada por todos los asistentes.

4.– El contador retirado deberá ser remitido por la Administración, debidamente precintado al correspon-

pena egin dezaten. Kontagailua behar bezala prezintatuta bidali beharko dute. Laborategira bidaltzeak dakartzan kostuak eta laborategitik titularrarengana bidaltzeak dakartzanak administrazioaren kontura izango dira.

5.– Mota bereko kontagailuak egiaztatzeko gauza diren baimendutako laborategi bat baino gehiago badaude, kostu edo prezio txikiagoa eskaintzen duen laborategira bidaliko da kontagailua, edo beste laborategi batera ere bidali ahal izango da, orokorrean interesgarriagoa bada interesatuarentzat.

10. artikulua.– Kontagailua egiaztatzea.

1.– Kontagailua laborategian jaso bezain pronto egingo da egiaztapena, dagozkion egiaztapeneko prozedura teknikoak kontuan hartuta.

2.– Laborategiak egiaztapena egin eta gero, txosten bat egin beharko du eta txostenean honakoak jasoko ditu: zeintzuk proba egin diren eta lortu diren emaitzak, ikusi diren akatsak ere espreski adieraziz, eta, azkenik, kontagailua behar bezala dabilen ala ez adierazi beharko da.

3.– Txosten horren hiru kopia egingo dira, eta hirurak dagokion lurralde bulegora bidaliko dira egiaztapen-kostuen fakturarekin batera.

4.– Kontagailua egiaztatu ostean, kontagailua titularrari itzuliko diote dagokion lurralde bulegoaren bitartez.

11. artikulua.– Kontagailua behar bezala badabil.

1.– Laborategiko txostena jaso eta egiaztatzen bada kontagailua behar bezala dabilela, lurralde bulegoak erabiltzaileari eta enpresa hornitzaileari jakinarazi beharko die hori.

2.– Era berean, kostuak ere inputatuko dira, eta horretarako, Agindu honetako 6. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan. Kostuen inputazioarekin batera, zera jakinaraziko zaio eskatzaileari: egiaztapen-kostu moduan gordailatutako zenbatekoa laborategi ofizialera bidaliko dutela.

12. artikulua.– Kontagailua behar bezala ez badabil.

1.– Laborategiko txostena jaso eta egiaztatzen bada kontagailuak onartu daitezkeen akatsak baino gehiago dauzkala, lurralde bulegoak horren gaineko jakinarazpena egingo die titularrari eta enpresa hornitzaileari, eta 10 eguneko epea emango die kontsumoen likidazio berria egiteko eta kontuan hartu behar diren eta haiek interesgarritzat jotzen dituzten agiriak eta alegazioak aurkezteko.

2.– Horretaz gain, gastuen inputazioa ere jakinaraziko zaie alde biei. Gastuak kontagailuaren titulartasuna eta Agindu honetako 6. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta inputatuko dira.

diente laboratorio para su verificación. Los costes derivados de la remisión al laboratorio o desde éste al titular, correrán por cuenta de la Administración.

5.– En el supuesto de que existan varios laboratorios autorizados para la verificación de contadores de un determinado tipo, el contador se remitirá al que presente costes o precios más bajos u otro laboratorio si resulta más beneficioso en su conjunto para el interesado.

Artículo 10.– Verificación de contador.

